

20²⁰₂₁

KIROL JARDUERAK



012 (948.012.012) TELEFONOAN ETA
WWW.ANSOAIN.ES HELBIDEAN

INFORMAZIO GEHIAGO
WWW.IDAKI.ORG

AURREINSKRIPZIOA
EKAINAREN
2TIK 12RA



ANTSOAINgo udala
Ayuntamiento de ANSOAIN



Udal Kirol Zerbitzua
Servicio Municipal de Deportes

AURREINSKRIPZIOA

- UDAL WEBGUNEAREN BITARTEZ www.ansoain.es
- **012 TELEFONOAN**
(948-012012 doan, tarifa laua duten sakelako telefonoentzat eta Nafarroatik kanpo)



EGUNAK: Ekainaren 2tik 12ra

ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera, 08:00 - 19:00etara

DEIAN EMAN BEHARREKO DATUAK::

- Jardueraren kodea.
- Izen-abizenak.
- Jaioteguna.
- Helbidea eta telefono zenbakia
(AHAL DELA SAKELAKOA)

**Ez dira onartuko jarduera bererako ordutegi desberdinak dituzten aurreinskripzioak.*

AUKERAKETA

Zozketa egingen da informatika-aplikazio baten bidez, eskura dauden tokiak baino eskaera gehiago jasoz gero.

ZERRENDAK JENDAURREAN JARTZEA

EGUNA: Ekainak 18

LEKUA: 012 telefonoa

- www.ansoain.es

- Udalaren Kirol Zerbitzuko iragarki-oholean (Idaki)

IZEN-EMATEA

NOIZ: Ekainaren 18tik 30era

NOLA: 012ra deitu eta jardueraren kuota ordaindu.

DEIAN EMAN BEHARREKO DATUAK:

- Jardueraren kodea
- Izen-abizenak
- Jaioteguna
- Ordainketa modua (A edo B)
- Banku-txartelaren zenbakia

ORDAINTZEKO PROZEDURA ETA PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

Hona hemen ikastaroaren kuota ordaintzeko modua:

A. **ORDAINKETA BAKARREAN**, 012an izena ematen den unean.

B. **Hiru epetan**, 012 telefonoan, txartel bidez

- LEHEN EPEA: % 40, jardueran IZENA EMATEAN.
- BIGARREN EPEA: % 30, irailaren 9tik 18ra.
- HIRUGARREN EPEA: % 30, abenduaren 9tik 18ra.

KUOTAK	Haurrak (2006 arte)	Gazteak (2005-2003)	Helduak (2002 eta aurrekoak)
Kirol instalazioetan bonua duten erroldatutako pertsonak	160 €	185 €	210 €
Kirol instalazioetan bonurik ez duten erroldatutako pertsonak	190 €	220 €	250 €
Kirol instalazioetan bonua duten erroldatu gabeko pertsonak	208 €	240 €	273 €
Kirol instalazioetan bonurik ez duten erroldatutako gabeko pertsonak	256 €	296 €	336 €

- Inork SMS bidezko abisua jaso nahi badu bigarren eta hirugarren ordainketaren epea oroitartzeko, sakelako telefono zenbaki bat eman beharko du izena ematen duen unean.
- Ezarritako epeetan zatikatutako kuotaren zenbatekoa ez bada ordaintzen, zorra % 5 goratuko da, eta beste epe bat jarriko da dagokion ordainketa egiteko. Ordaindu gabe jarraitzeak jarduera egiteko eskubidea galtzea ekarriko du. Baja emanen da jardueran, eta ez da eskubiderik izanen ordaindutako zenbatekoak berreskuratzeko. Orobat, geroraturako kuotak ordaintzeko dituenak, ezin izanen du izenik eman ondoko ekitaldietako jardueretan, dituen zorrak ordaindu arte.
- Izena emateko epea bukatuta, eskainitako ikastaroren batean plaza liberrik gelditzen bada, inskripzio berriak egin ahal izanen dira, betiere ikastaro guztia ordaintzen bada izena ematen denean.
- Eskainitako talderen batean behar adina izen-ematerik ez badago, jarduera bertan behera geldituko da, eta ordaindutakoa itzuliko da.
- Eskainitako jardueraren batean eskatu adina plaza ez badago, zozketa bidez emanen dira plazak, zenbait lehentasun-irizpide aintzat hartuta: lehenik, kirol instalazioetan bonua duten Antsoaingo bizilagunak izatea; bigarren, kirol instalazioetan bonurik ez duten Antsoaingo bizilagunak izatea; hirugarren, kirol instalazioetan bonua duten Antsoainen erroldatu gabeko bizilagunak hartuko dira aintzat; laugarren, Ezkaba Eskola Publikoan ikasi eta Antsoainen erroldatuta ez daudenak; eta azkenik, kirol instalazioetan bonurik ez duten, Ezkaba Eskola Publikoan ikasten duten eta Antsoainen erroldatu gabe dauden pertsonak.
- Antolaketa eta programazio arazoak direla-eta, **EZ DA ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA ITZULIKO BEHIN BETIKO INSKRIPZIOA BETE ONDOREN**. Edozein kasutan, urritik maiatzera bitarteko iraupena duten ikastaro guztietarako, jardueraren lehenengo hogeita hamar egunen barruan, Udalak ordaindutako zenbatekoa itzuli ahal izanen du, agiri bidez behar bezala justifikatutako egoera bereziak gertatuz gero (esate baterako, mediku-txostenak, jarduera bera ez egitea gomendatuz edo jarduerara bertaratzea zailduko duen etxebizitza aldaketarik ez egiteko gomendioa eginez). Ikastaro edo jarduera laburragoetarako, Udalak ordaindutako zenbatekoa itzultzen ahalko du, arestian deskribaturiko moduan, urritik maiatzera bitarteko ikastaroetarako, horiekiko proportzioan eta horien iraupen zehatza oinarri hartuta.
- Bost hilabetetik behera irauten duten jarduera puntualen prezio publikoa epe bakarrean ordainduko da, jardueran izena ematen denean: udako igeriketa ikastaroak, saskibaloiko campusa eta bestelakoak.
- Ordenantza honetako jardueretan parte hartu ahal izateaz baldintza beretan balia daitezten herritarrak, horretarako eginen den laguntza sozialen deialdian ezarritakoari jarraituko zaio.

OHARRAK

- 1.- HAURREN, GAZTEEN ETA HELDUEN jarduerak urriaren 1etik maiatzaren 31ra iraunen dute, lehiaketako egutegia duten jarduerak izan ezik.
- 2.- ERRETIRATU-PENTSIODUNEN JARDUERAK urriaren 1etik ekainaren 11era iraunen dute.
- 3.- Eskaintzen diren kirol jarduerak egiteko, honako baldintza hauek bere osoan bete beharko dira:
 - 3.1. Jarduera batek –gaztelaniaz izan edo euskaraz izan– behar adina izen-emate izan badu, eskaini den hizkuntzan eginen da, eta praktikan ez da aldatuko hasieran eskaini den jarduera-hizkuntza, eta horrela, jarduera horretan izena eman duten erabiltzaileen aukeraketa errespetatuko da.
 - 3.2. Jarduera batek behar adina izen-emate lortu ez badu, ez gaztelaniazko taldean, ez euskarazkoan, ez da eginen; baina bi taldeen izen-emateak batuta, talde bat aurrera ateratzeko behar adina izen-emate badaude, ainei, aitei edo tutoreei galdetuko zaie, eta haien baimenarekin bakarrik osatuko da taldea, dela gaztelaniaz dela euskaraz.
- 4.- Prezioa ordaindu behar duen pertsonari egozten ahal ez zaizkion arrazoiek eraginda ikastaroa edo jarduera ez bada ematen edo garatzen, ordaindu den zenbatekoa itzuliko da, Antsoaingo Udalaren 14. Ordenantza Fiskalean ezarritakoarekin bat.
- 5.- Aurreinskripzioa egitean, baimena ematen duzu zure datu pertsonalak Udalaren webgunean agertzeko, zure aurreinskripzioaren emaitzaren berri emate aldera.
- 6.- DATUEN BABESA: Antsoaingo Udala da datu pertsonal hauen tratamenduaren arduraduna. Datu horien erabilerak helburu du Antsoaingo Udaleko kirol zerbitzua kudeatzea, botere publikoa baliatuz. Datuak lagatzen ahal dira indarrean dagoen legeriari jarraikiz. Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu Udalaren egoitzan. Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza aurki dezakezu, gure webgunean: <http://www.ansoain.es/eu/10-2/aviso-legal/> Legezko abisuaren atala. Pribatutasun politika.
- 7.- Udaleko Kirol Zerbitzuak onetsitako Kode Etikoarekin bat, UKZ honi lotutako jarduera orotan izena eman eta edozein kirol jarduera egitean, Antsoaingo Udalak, kirol entitateek, teknikariek, erabiltzaileek eta familiek honako konpromiso hau hartzen dute:
 - Kode Etiko hau onartzea, egindako kirol jardueraren zati bereizezin den neurrian. Erabiltzaile edo adingabearen guraso den heinean, haren jarrerari eragiten dion gutxian hura betetzeko erantzukizun morala hartzea.
 - Kode Etikoa ezartzen eta garatzen laguntzea, baita aldizka ebaluatzen ere, horretarako jartzen zaizkion baliabideak erabiliz.

ANTSOAINGO UDALEKO KIROL ZERBITZUAREN KODE ETIKOA

Antsoainen, kode etiko hau eta bertan jasotzen diren oinarrizko arauak sinatu ditugu Udalaren Kirol Zerbitzuak eta Zerbitzua osatzen duten kirol erakundeek, kirol jardueretako teknikariok, erabiltzaileok eta familiok:

- 1.- Kirola jarduera fisikoa baino zerbait gehiago dela ulertzen dugu; izan ere, kirola adiskidetasuna, bizikidetzeta, errespetua, berdintasuna eta jende ororen integrazioa da, edozein delarik ere jendearen arraza, sexua, sexu-joera, erlijioa, hizkuntza eta jatorria.
- 2.- Kirola lehiaketa baino zerbait gehiago da. Kirola, batez ere, aukera-berdintasuna, partaidetzeta, josteta eta ahalegina da.
- 3.- Pertsonak entrenatzen ditudanean edo kirol-prestakuntza ematen diedanean, ez naitzaie oldarkortasunez eta irainka mintzatuko, eta ez diet hitz zakarririk esanen, ez entrenamenduetan, ez lehiaketa saioetan. Era berean, ez dut esanen inolako esamolde arrazistarik eta matxistarik, ezta jendearen sexu-joera eta/edo erlijio-joera gaitzesteko esamolde iraingarririk ere.
- 4.- Harmailetan, ez naiz oldarkortasunez arituko, ez arbitroen aurka, ez lehiakideen aurka, ez aurkarien zaleen aurka, eta ez diet hitz zakarririk esanen, inolako irainik eta/edo inolako esamolde arrazistarik eta matxistarik, ezta jendearen sexu-joera eta/edo erlijio-joera gaitzesteko esamolde iraingarririk ere.
- 5.- Antsoaingo erabiltzaile, teknikari eta kirol erakunde guztiek zaindu egin beharko dute kirol jarduera egiteko erabiltzen ari diren instalazioa, bai eta aldagelak eta kirola egiteko erabiltzen den kirol materiala ere.
- 6.- Era berean, Udalak bermatu egin beharko du kirol instalazioen, aldagelen eta kirol materialaren mantentze egokia.
- 7.- Kirol jardueretan aritzen direnek behar diren bitartekoak izanen dituzte eskura, egokitzat jotzen duten kontu oro helarazteko Antsoaingo erakundeei eta/edo Udalari, kasuan kasuko jardueraren praktikari dagokionez.
- 8.- Antsoaingo kirol erakundeek eta Udalak ahalik eta lasterren erantzun beharko diete erabiltzaileen eskaerei, horretarako moldatu diren bideak erabilia.
- 9.- Udalaren Kirol Zerbitzuak, zerbitzua osatzen duten erakundeen bidez, kirol jardueraren jarraipen zehatza bermatuko du, eta Udalaren bitartekoak kirolaren zerbitzuan jarriko ditu kirol jarduerak, emaitzak, albisteak, abisuak eta beste zabaltzeko.
- 10.- Kode etiko hau sinatu duten alde guztiek hitza eman dute etengabe arduratuko direla Antsoaingo kirola duintzeaz, eta kirola lehen mailako eta babestu beharreko gizarte ondasun gisa hartuko dute aintzat.



HAURRENTZAKO JARDUERAK



KOD.	JARDUERA	JAIOTEGUNA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA
1.1.A	XAKEA (HASTAPENA) EUSKARAZ	2013tik 2014ra	ASTEAZKEN eta OSTIRALETAN	17:00 - 18:00	GAZTE BERRIAK
1.1.B	XAKEA (HASTAPENA) GAZTELANIAZ	2013tik 2014ra	ASTEAZKEN eta OSTIRALETAN	17:00 - 18:00	GAZTE BERRIAK
1.1.C	XAKEA (ERDIKO MAILA- TEKNIFIKAZIOA)	2006tik 2014ra	Plazak mugatuak dira eta jadanik osatuta dauden taldeak beteko dituzte.Ordutegiak zerrendak jendaurrean jartzearekin bat jakinaraziko dira		
1.2.A	GIMNASIA ERRITMIKOA EUSKARAZ	2015etik 2016ra	ASTEARTE eta OSTEGUNETAN	16:40 - 17:30	IDAKI
1.2.B	GIMNASIA ERRITMIKOA GAZTELANIAZ	2015etik 2016ra	ASTEARTE eta OSTEGUNETAN	17:35 - 18:25	IDAKI
1.2.C	GIMNASIA ERRITMIKOA	2006tik 2014ra	Plazak mugatuak dira eta jadanik osatuta dauden taldeak beteko dituzte.Ordutegiak zerrendak jendaurrean jartzearekin bat jakinaraziko dira		
1.3.A	JUDOA (HASTAPENA) EUSKARAZ	2015	ASTELEHEN eta ASTEAZKENETAN	17:45 - 18:45	IDAKI
1.3.B	JUDOA (HASTAPENA) GAZTELANIAZ	2015	ASTELEHEN eta ASTEAZKENETAN	17:45 - 18:45	IDAKI
1.3.C	JUDOA	2006tik 2014ra	Plazak mugatuak dira eta jadanik osatuta dauden taldeak beteko dituzte.Ordutegiak zerrendak jendaurrean jartzearekin bat jakinaraziko dira		
1.4.A	KIROL AURREKO JOKOAK EUSKARAZ	2011tik 2016ra	ASTELEHEN edo OSTEGUNA	17:00ak eta 20:00ak bitartean	KANPOKO PISTAK
1.4.B	KIROL AURREKO JOKOAK GAZTELANIAZ	2011tik 2016ra	ASTELEHEN edo OSTEGUNA	17:00ak eta 20:00ak bitartean	KANPOKO PISTAK
1.5.A	PATINAJEA (HASTAPENA) EUSKARAZ	2012tik 2016ra	ASTEARTE eta OSTIRALETAN	17:00 - 18:00	PILOTALEKUA/ KANPOKO PISTAK
1.5.B	PATINAJEA (HASTAPENA) GAZTELANIAZ	2012tik 2016ra	ASTEARTE eta OSTIRALETAN	17:00 - 18:00	PILOTALEKUA/ KANPOKO PISTAK

KOD.	JARDUERA	JAIOTEGUNA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA
1.6.A	PILOTA (HASTAPENA) EUSKARAZ	2006tik 2014ra	ASTELEHEN eta OSTEGUNETAN	18:00 - 19:00	PILOTALEKUA
1.6.B	PILOTA (HASTAPENA) GAZTELANIAZ	2006tik 2014ra	ASTELEHEN eta OSTEGUNETAN	17:00 - 18:00	PILOTALEKUA
1.7.A*	TRIATLOIA (HASTAPENA) EUSKARAZ	2014	ASTELEHEN eta ASTEAZKENETAN	18:00ak eta 20:00ak bitartean	IGERILEKUAK / PARKEA / KANPOKO PISTAK
1.7.B*	TRIATLOIA (HASTAPENA) GAZTELANIAZ	2014	ASTELEHEN eta ASTEAZKENETAN	18:00ak eta 20:00ak bitartean	IGERILEKUAK / PARKEA / KANPOKO PISTAK
1.7.C*	TRIATLOIA	2006tik 2013ra	Plazak mugatuak dira eta jadanik osatuta dauden taldeak beteko dituzte. Ordutegiak zerrendak jendaurrean jartzearekin bat jakinaraziko dira.		

*Jarduera hau soil-soilik kirol instalazioetako bazkideentzat izanen da; aurrez plazak banatzeko zozketan izena emanda dauden gutziek igeriketa proba bat egin beharko dute, bakoitzak bere kategoriari dagokiona, eta Antsoain Triatloi Klubeko zuzendaritza teknikoak ezartzen duen gutxieneko denbora gainditu beharko du.

GAZTEENTZAKO JARDUERAK

KOD.	JARDUERA	JAIOTEGUNA	LEKUA
2.1	GIMNASIA ERRITMIKOA	2003tik 2005era	IDAKI
2.2	JUDOA	2003tik 2005era	IDAKI
2.3	TRIATLOIA	2003tik 2005era	IGERILEKUAK / PARKEA / KANPOKO PISTAK



Plazak mugatuak dira eta jadanik osatuta dauden taldeak beteko dituzte, jarduera gauzatu ahal izateko behar den gutxieneko maila edukiz gero. Ordutegiak zerrendak jendaurrean jartzearekin bat jakinaraziko dira.

Idakirolak
Ki

IDAKI KIROL BONUAREN JARDUERAK

Asteko jarduera sorta:
Spinning • Zumba • Trx • Pilates •
Hipopresiboak • Aeroyoga • Gap eta
abdominalak....

ERRETIRATU ETA PENTSIODUNENTZAKO JARDUERAK

Mantentze gimnasia izena ematen dutenek konpromisoa hartzen dute Nafarroako Gobernuaren honako programa honetan parte hartzeko: "JARDUERA FISIKOA HIRUGARREN ADINEAN"

KOD.	JARDUERA	EGUNAK	ORDUTEGIA	LEKUA	KUOTA
3.1.A	MANTENTZE GIMNASIA	ASTELEHEN ASTEAZKEN eta OSTIRALETAN	10:00 - 11:00 9:00 - 10:00	IDAKI	77,00 €
3.1.B	MANTENTZE GIMNASIA	ASTELEHEN ASTEAZKEN eta OSTIRALETAN	11:00 - 12:00 10:00 - 11:00	IDAKI	77,00 €
3.1.C	MANTENTZE GIMNASIA	ASTELEHEN, ASTEARTE eta OSTEGUNETAN	10:00 - 11:00	IDAKI	77,00 €
3.1.D	MANTENTZE GIMNASIA	ASTELEHEN, ASTEARTE eta OSTEGUNETAN	11:00 a 12:00	11:00 - 12:00	77,00 €

Plazak mugatuak dira eta jadanik osatuta dauden taldeak beteko dituzte. Ordu-tegiak zerrendak jendaurrean jartzearekin bat jakinaraziko dira.

FUTBOLA / FUTBITOA

CLUB DE FÚTBOL GAZTE BERRIAK ANTSOAIN

IZEN-EMATEA: EKAINAREN 1ETIK 12RA

Idatzi gazteberriakfutbol@gmail.com helbidera o edo whatsapp bidali 601 398 015 telefonora, izen-abizenak, jaiotza data, helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa adierazita.

2015ean eta aurretik jaiotakoentzat da, kontuan harturik plazak mugatuak direla eta jadanik osatutako taldeak beteko dituztela.

TELEFONOA 948 060 890

ESKALADA ESKOLA
ANTSOINGO MENDI
ESKOLA KLUBA

Telefono bidezko informazioa **649 721 490**

E-postan: antsoaingo.m.e@gmail.com



HERRI KIROLAK
ANTSOAIN HERRI
KIROL TALDEA

IZENA EMATEKO EPEA
EKAINAREN 26RA ARTE

TXIKIEN taldea 20010etik 2005era jaiotakoak
HELDUEN taldea 16 urtetik gora

Informazioa e-postan: herrikirolakantsoain@gmail.com

HALTEROFILIA
CLUB
HALTEROFILIA
GAZTE BERRIAK

IZENA EMATEKO EPEA
EKAINAREN 26RA ARTE

2012an eta aurretik jaiotakoentzat da, kontuan harturik plazak mugatuak direla eta jadanik osatutako taldeak beteko dituztela.

Idatzi halterofiliagazte@gmail.com helbidera, izen-abizenak, jaiotza data, helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa adierazita.

SASKIBALOIA
GAZTE BERRIAK
SASKIBALOI
KLUBA

IZENA EMATEKO EPEA
EKAINAREN 26RA ARTE

2015ean eta aurretik jaiotakoentzat da, kontuan harturik plazak mugatuak direla eta jadanik osatutako taldeak beteko dituztela.

Idatzi gazteberriask@gmail.com helbidera, izen-abizenak, jaiotza data, helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa adierazita.

IGERIKETA. UMEAK

2020KO URRITIK 2021EKO APIRILERA

Astean bi saio, urritik 2021eko apirilera

2006 eta 2017.urteen artean jaiotakoak (biak barne)

Bazkideek: 178,57 €

Bazkide ez direnek: 254,27 €

HAURRAK URETARA

Jardueraren lehen egunean, 6 eta 36 hilabete bitarte dituztenak.

Lehenengo ikastaroa: urria-urtarrila

Bigarren ikastaroa: otsaila-maiatza

Astean saio bat, asteazkenetan edo ostiraletan, 15:30etatik aurrera (14 saio)

Kirol instalazioetan bonua duten pertsona erroldatuak: 65 €

Kirol instalazioetan bonurik ez duten pertsona erroldatuak: 85 €

Kirol instalazioetan bonua duten pertsona ez-erroldatuak: 105 €

Kirol instalazioetan bonurik ez duten pertsona ez-erroldatuak: 115 €

IGERIKETA. 16 URTE EDO GEHIAGO

Lehenengo ikastaroa: urria-urtarrila

Bigarren ikastaroa: otsaila-maiatza

Ikastaro bakoitzak 28 saio ditu

Bi saio astean, 45 minutuko jarduera

Goizak eta arratsaldeak konbinatzeko aukera

Kirol instalazioetan bonua duten pertsona erroldatuak: 115 €

Kirol instalazioetan bonurik ez duten pertsona erroldatuak: 125 €

Kirol instalazioetan bonua duten pertsona ez-erroldatuak: 155 €

Kirol instalazioetan bonurik ez duten pertsona ez-erroldatuak: 175 €

Abuztuaren 25ean argitaratuko da ordutegiak, taldeei eta beste zehaztasunei buruzko informazio osagarria. Ikusgai jarriko da www.ansoain.es eta www.idaki.org webguneetan eta Udalaren Kirol Zerbitzuko iragarki-oholean (Idaki).